

Erlojuak eta tribuak

Hedabideek ikerketa bat zabaldu dute: 1975 eta 1979 urteen artean jaiotako emakumeen ia herenak ez du seme-alabarik izango. *El País* egunkariak, “gehiegi itxarroteagatik” amak izango ez diren emakumeen “drama” kontatu du. Adituen esanetan –gehienak gizonezkoak–, arrazoiak bat prekariedadea da, beste bat bikote harreman egonkorra “beranduegi” topatzea. Gizonezko aditu horiek diotenez, emakumeen “ugalketa ametsak” betetzeko baliabideak jarri behar dira, esaterako, doako haurtzaindegiak. Espainiko Estatua amatasuna gehien atzeratzen duen Europako herrialdea omen da, kontziliazio politika egokien faltarengatik. Espainiako Ugalkortasunaren Elkarteko kide batek, Isidoro Brunak, beste arrazoi bat eman du: emakumeon kontzientzia falta. Hau da, ez dugu kontuan hartzen gure “erreserba obarikoa” agortzen ari dela, uste dugu, Anne Igaritiburu bezala, 45 urterekin haurdun geratu ahal izango garela. Tuntunak eta arduragabeak gara, alegia.

Gai honi buruz beste hedabideetan topatu ditudan erreportajetan ere emakumeen sufrimendua eta frustrazioa dira nagusi. Amatasunaz, ez aitatasunaz, hitz egiten dute beti. Bikoteak aipatzen dira –denak gizonezkoak–, argazkietan ere agertzen dira, baina ez da euren testigantza jasotzen eta ez da mundura umerik ekarriko ez duten gizonen portzentajea zehazten. Ama ez izatearen erabakia gozatzen duten emakume gutxi agertzen dira, eta seme-alabak izateaz damutu den amarik ez dago, noski.

Gizonezko adituek diotenez, nire adineko emakumeok erne egon behar dugu, ezin dugu erlojuaren tiki-taka ahaztu. Ahaztu? Posible al da ahaztea? Ugalketa kliniken publizitatea nonahi dago; hedabideek krisi demografikoari buruz etengabe dihardute, eta familia “luzaro barik pasako zaizu sasoi” bezalakoak entzun behar ditugu. Beno, lesbianak bagara



June Fernández

KAZETARIA

@marikazetari

Gizonezko adituek diotenez, nire adineko emakumeok erne egon behar dugu, ezin dugu erlojuaren tiki-taka ahaztu. Ahaztu? Posible al da ahaztea? Ugalketa kliniken publizitatea nonahi dago; hedabideek krisi demografikoari buruz etengabe dihardute, eta familia “luzaro barik pasako zaizu sasoi” bezalakoak entzun behar ditugu. Beno, lesbianak bagara

bezalakoak entzun behar ditugu. Beno, lesbianak bagara.

Abortatzeko eskubidearen borroka irabazi dugu baina gizarte patriarkalak gure uteroak kontrolatzeko tresna gehiago ditu. Esaterako, “gehiegi itxaroten” badugu, zoritxarrekoak izango garenaren mehatxua.

Bitartean, nire inguruan, askok argi daukate seme-alabak nahi dituztela; askok argi daukate ez dituztela nahi. Beste batzuek ama izateko erabakia ezinegonez bizi dugu: zalantza, oztopo, presio eta beldur mordorekin. Baina, erabaki hori hartzeko orduan gure amak eta gure amamak baino libreagoak gara. Umerik ez izatea aukera bat dela dakigu. Familia nuklear erradioaktiboa apurtzeko aukera ere badaukagu. Senarrak gabe, gure emakumezko bikotearekin edota polimaitasun ereduak probatuz familiak sortu ditzakegu. Hori bai: Espainiako Gobernuaren diskriminazio politikarekin topo egingo dugu.

“Tribuan”, komunitatean, hezteko ereduari buruz berriro ere asko hitz egiten da, baina normalean amak diren artean batez ere. Amatasunaren “ametsa” –nik “agintea” esango nukebete ez duten emakumeen testigantzak irakurtzean burutapen bat izan nuen: haur bat “izatearen” behar hori kapitalismoak sortutakoa da. Familia nuklearra eredu indibidualista dela, jabetza pribatuarekin lotutakoa. Egon badaude seme-alabak izan ez dituzten pertsonak, baina horiek haurrak –ilobak edota lagunen seme-alabak, besteak beste– hezten laguntzen dute. Familia eredu komunitario baten aldeko apustua egingo bagenu, seme-alabak izateko aukera ez dutenek agian ez lukete porrot sentimendu hori sentituko, tribuan bere papera izango luketelako. Haste-ko, beldurrak astintzeko eta erlojuak birrintzeko, irribarre bat jar dezagun “katuen atso zoroaren” irudian. ■